



# LAN HITZARMENA

Ekainaren 20an, Lan Hitzarmeneko mahaia bildu da. Bilera honetan adostasun batzuetara iritsi gara PARTAIDE, EIB, LAB eta ELA. Bileran adostutakoa sinatzeko, ekainaren 26a izango da eta Lan Hitzarmena bere osotasunean sinatzeko uztailaren 10ean.

Hona hemen Lan Hitzarmena sinatzeko adostu ditugun atalak:

<b>SOLDATAK</b>	
<b>I TALDEA</b>	
HH eta LHko irakasleentzat	%4,72
DBH (1zikloa)	%4,82
DBH eta DBHOkoko irakasleentzat	%4,77
HH 1 zikloa (0-3)	
Irakasleentzat	HH 2 zikloko irakasleen berdina
Hezitzaileentzat	Irakasleen soldataren %70, hau da, %6,9
Hezitzaile laguntzaileentzat	Hezitzaileen soldataren %90, hau da, %5,3
Heziketa Bereziko laguntzaileentzat	Urtarrietik abuztura %2,7 eta abuztutik aurrera %22,46. Hau da abuztutik aurrera 35 orduko atentzio modulua erreferentzia harturik, urteko soldata 21.920,10 eurokoa izango da.
Antzintasunean %2koa	
<b>II TALDEA ADMINISTRARIAK</b>	
Administrari burua	KPI + 0,5 = %3,2
Ofizial administraria	
Administrari laguntzailea	
Antzintasunean %2,7	
<b>III TALDEA ZERBITZU OROKORRETAKO LANGILEAK</b>	
Sukaldariburua	KPI + 0,5 = %3,2
Etzezaina	KPI + 0,5 = %3,2
Sukaldaria	%4,7
Sukaldari laguntzailea	
Atezaina	
Mantenuko langilea	
Jantokiko langilea	
Garbiketako langilea	
Zelaria	
Kualifikaziorik gabeko langilea	
Antzintasunean %2,7	

# HOBEKUNTZAK

## HH 1 zikloa

- ✓ Urteko ordutegia egiterakoan, ikastolaren titularrak eta ikastolako lan komitearen artean adostuko da.
- ✓ Ziklo honetako langileek 3-6 ziklorako promozioan lehenetsua izango dute, eta besteetan beste langileek duten eskubide berbera 64.b Lan Hitzarmeneko atalak dioen bezala.

## HEZKUNTZA BEREZIKO LAGUNTZAILEAK

Langile hauen egonkortasuna eta berkokapena errazteko asmotan lan poltsa sortuko da.

## BERDINTASUN LEGEA

- ✓ Amatasun lizentzia: Oporrak udarakoak hartuko dira kontuan (45 egun) eta ez abuztua bakarrik. Beraz udarako 45 egun xurgatu gabe geratzen dira.
- ✓ Aitatasunagatik beste 13 egun gehiago izatea. Azken aktan honen xehetasunak agertuko dira.
- ✓ Jaio berriak ospitalean jarraitu behar badu edo jaio eta 30 eguneko apean ospitaleratu beharra badago, amatasun lizentzia haurra ospitalean dagoen bestean luzatuko da, 13 astean gehienez ere.
- ✓ Adineko pertsonak zaintzeko 2 urtetara luzatu.
- ✓ Umeak zaintzagatik jardun murriztua umeak 8 urte egin arte luzatzea eta jarduna murriztea zortzirenetik erdira.
- ✓ Gainontzeko ataletan IBP-k egingo du lan.

## JARRAIPEN SARIA

60. artikulua bertan behera geratzen da eta ondorengoak ordezkatu du.

- ✓ Sektorean 20 urteko zerbitzua izanez gero eta 55 urte baditu langileak, aukera izango du jarraipen saria kobratzeko (lau lansari) hortik aurreko 5 urte bakoitzeko beste lansari bat kobratuko du.

## ERRELEBO KONTRATUA

2006ko azaroaren 14 an harturiko erabakia Lan-Hitzarmeneko testuan sartzea erabakitzen da.

## HILABETE BATETIK BEHERAKO ORDEZKAPENAK

Hiru baldintza bete ezkerko irakasle laguntzaileak irakasle titularraren trataera edukiko du.

- ✓ Ikasturte batean izatea.
- ✓ Ikastola berean izatea.
- ✓ Ordezkapen guztien batura hilabete bateko iraupena baino luzeago izatea.

## BESTELAKOAK

- ✓ Antzinatasunaren trataera kontratu finko berrien kasuan: Kontratu desberdinek hartuko dira kontuan, baldin eta kontratu batetik bestera 20 eguneko tartea gainditzen ez bada.
- ✓ Bizikidetasunaren agiria frogatzen dutenei trataera berezia emango zaie baimenetan.

Besterik gabe amaitutzat eman zen bilera, informazio gehiago nahi izanez gero deitu LABeko egoitzetara. Aurreakordioa sinatzen denean, helaraziko zaizue ikastoletara.